142

113

ARCHI. [illegible] PAMPLONA

# Garde.

## akto Fedezkoa.

Ene Jeina eta Jangoiko berdadero zrena, nik si=
nestan diezud Zutan zrela Aita Jangoiko,
Semea Jangoiko, Espiritu Saintu Jeina Jangoi=
ko irur Persona distintorik eta Jangoiko bat
berdaderorik: zrela eterno, infinitoki sa=
bio, justo, gaiza guzietan poderoso, guzien prin=
zipio eta fin, eta Remunerazale zren bikala,
onak premietan duzula, eta gaistoak iburne=
az gaztigetan. Sinestan (zeuriaz) diezud Jesu=
kristo ene Jeina dela Jangoiko eta Gizon ber=
dadero, sortu zela Amaberjinaren ganik,
padezitu ziola pasione eta muerte doloro=
sorik gore redimi eta salbeta gatik, resuzi=
tatu zela, igan zela zeurietra, biar diola uzuli
Juizioko egunian mundiaren juzgetra, eta
dagola real eta berdaderoki Altareko Sakra=
mentu Santian. Kalaber sinestan diezud berze
gainarako Eliza Ama Saintiak manetan daizta=
dan Artikulo guzioak, zeren guzioak Zuk
baitazkazu rebelaturik.

# Akto Esperanzazkoa.

Ene Jein eta Jangoiko piadosisimo zrena, nik diezud Zutan esperanza andi bat Ziauren miserikordia fingabezun korren gatik, Jesukristo ene Jein eta Redemtorearen meresimentu andien gatik eta Maria Santisima bere Ama eta gore Abogadaren otoi poderosoen medioz, akompañetan dudalarik ñauren obra onek zoin biar baitutud egin, Zore grazia saintiaren asistenziareki parkaten daiztazudala ñore bekatiak eta emonen zeuriko gloria eternoa.

## akto Karitatezkoa.

Ene Jein eta Jangoiko amabilisimo zrena, nik onoresi eta estimetan zutud gaiza guzien gainetik zeren baizrade ontarzun fin bage bat dignisimorik onoresi eta estimaturik izaiteko. Zore gatik oneresi eta estimetan diezud ñauren projimo lagun guzioak ñauren burioa bikala, eta guzier Zore amorioa gatik parketan diazkazieud bioz guzioaz injuria eta azgrabio egin daizteidanak oro.

# Akto Kontrizionezkoa.

Ene Jein eta Jangoiko amorosisimo zrena, nik diezud dolore eta pesar andi bat ñore bioz guzian, nolare izanik Zu kain onik eta kain dignorik oneresi eta estimaturik izaiteko, ofenditu zutu-dan; eta zeren onoresi eta estimetan baizutud ñore bioz guzioaz, aborrezitan diezud bekatiak eta proposito firme egiten eztudala berriz uzuli biar Zore Majestadiaren ofenditra. Mi-serikordia ene Jein eta Jangoiko zrena, ekun zazu nitaz piedade.